

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### Jarduera baterako udal baimenaren eskaera

Somaga SA enpresak eskaera egin du legeztatzeko lurak mugitzeko ibilgailu industrialen garbitegia, zeina udal baimenik edo exekuzio agindurik gabe instalatu baitzen kokaleku honetan:

San José de los Llanos industrialdea

Los Llanos-I, mendebaldeko sektorea

C kalea, 7 zenbakia

Jendaurrean jartzen da, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoak, 58.2 artikuluan xedatutakoaren arabera —lege hori aldatu egin zen apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bitartez, zeinak hainbat lege egokitzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EB Zuzentaraura, barne merkatuko zerbitzuei buruzkora—, jarduera horrek eragiten diela uste dutenek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazioak edo oharrak egiteko, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2017ko martxoaren 1a

*Lehenengo alkateordea*

**MIGUEL-ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**